



# ADINEKOEN AURKAKO INDARKERIA EKONOMIKOA ETA ABUSU FINANTZARIOA

.....

Prebenitzeko, antzemateko  
eta esku hartzeko  
gida orientagarria



Irakurketa Erraza  
bertsioa

EUSKO JAURLARITZA

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



# AURKIBIDEA

Orrialdea

<b>1</b>	ZER DA INDARKERIA EKONOMIKOA EDO ABUSU FINANTZARIOA?.....	<b>4</b>
<b>2</b>	ZERGATIK DA GARRANTZITSUA HORRETAZ HITZ EGITEA?.....	<b>5</b>
<b>3</b>	NOLA GERTA DAITEKE?.....	<b>6</b>
<b>4</b>	ARRISKUA HANDITU DEZAKETEN EGOERAK.....	<b>7</b>
<b>5</b>	ALERTA-SEINALEAK.....	<b>8</b>
<b>6</b>	NOLA PREBENITU.....	<b>10</b>
<b>7</b>	ZER EGIN ABUSU-EGOERAREN BATEN SUSMOA BADUZU?.....	<b>11</b>
<b>8</b>	NOLA HITZ EGIN KALTETUAREKIN?.....	<b>13</b>
<b>9</b>	NORA JOAN.....	<b>14</b>
<b>10</b>	AZKEN MEZUA.....	<b>15</b>

# 1

## ZER DA INDARKERIA EKONOMIKOA EDO ABUSU FINANTZARIOA?



Adineko baten dirua, ondasunak edo eskubide ekonomikoak norbaitek **erabiltzen** edo **kontrolatzen** dituen edo bidegabe **kalte egiten** dien edozein ekintza da.

Horren barruan honakoak egon daitezke:

- Kontuak edo txartelak baimenik gabe erabiltzea.
- Dokumentuak sinatzera bultzatzea.
- Pentsioak edo laguntzak bereganatzea.
- Ondasunak saltzera edo dohaintza egitera behartzea.
- Pertsonak benetan ulertu gabe erabaki finantzarioak hartzea.

Askotan, laguntzaz edo zaintzaz mozorrotzen da, edo “bere onerako delako”.

Horrek pertsonari edo inguruneari egoera identifikatzea eragozten dio.

# 2

## ZERGATIK DA GARRANTZITSUA HORRETAZ HITZ EGITEA



Indarkeria mota hori konfiantzazko ingurunean gertatu ohi da: familia, zaintzaileak, gertuko lagunak...

**Kalte ekonomiko eta emozionala eragiten ditu:** beldurra, lotsa, bakardadea, autonomia galtzea.

Garaiz antzemateak adinekoaren duintasuna eta segurtasuna babesten ditu.



# 3

## NOLA GERTA DAITEKE?



Hainbat modutan gerta daiteke.

Baina hauek dira ohikoenak:

- Pentsioak, laguntzak edo errentak norberarentzat hartzea.
- Baimenik gabe honakoak erabiltzea: txartelak, ezkutuko zenbakiak, libretak edo online banka.
- Transferentziak, maileguak, opariak, abalak edo dohaintzak egitera bultzatzea.
- Testamentuetan, onuradunetan edo ahalordeetan aldaketak egitera behartzea.
- Ondo ulertzen ez dituen kontratuak, salmentak edo dokumentuak sinatzea lortzea.
- Hornidurak (argia, ura, gasa), komunitatea, janaria edo botikak ordaintzeari uztea.
- Deien, mezuen, iruzur digitalen edo etxez etxeko salmenta bortitzen bidez engainatzea.

# 4

## ARRISKUA HANDITU DEZAKETEN EGOERAK



Adineko guztiak ez dira egoera berean bizi.

**Pertsona bat ahulago eginarazi** dezaketen gauzak daude.

Adibidez:

- Bakarrik egotea edo beste pertsona batzuekin harreman gutxi izatea.
- Kudeaketak edo izapideak egiteko laguntza behar izatea.
- Bikotekidea duela gutxi galdu izana.
- Internet edo teknologia erabiltzeko zailtasunak izatea.
- Emozionalki beste pertsona bat behar izatea.
- Memoria arazoak, nahastea edo narriadura kognitiboa izatea.

Honakoek ere eragin diezaiokete:

- Familiako gatazkak.
- Gertuko pertsona bat adinekoaren menpe egotea ekonomikoki.

**Laguntza behar izateak** ez du erabakitzeko ahalmena galtzea esan nahi. Laguntza eskaintzea garrantzitsua da, betiere pertsonaren nahiak, gogoak eta lehentasunak errespetatzen badira.



Seinale batzuk begiratzea komeni da. Seinale batek bakarrik ez du abusua dagoela baieztatzen. Baina hainbat seinale batera ditugunean, adi egon behar dugu.

#### Adinekoaren seinaleak

- Ordaindu gabeko fakturak, ezusteko zorrak, diru falta.
- Banku-mugimenduei buruzko nahastea, eta horrekiko kezka.
- Janari, botika, audiofono, arropa edo berokuntza falta.

#### Inguruneko seinaleak

- Beste pertsona batek erantzuten du beti adinekoaren ordeztan, edo haren gizarte harremanak mugatzen ditu.
- Dokumentuak sinatzeko edo diruaren kontrola justifikatzeko presak.

#### Seinaleak jarduera ekonomikoan

- Diru-ateratze edo transferentzia arraroak.
- Titularrak edo onuradunak bat-batean aldatzea.
- Txartelen erabilera ez oso argia edo azalpenik gabeko sinadurak.

Teknologiarekin zailtasunak izateagatik ez dugu beste batzuen menpe egon behar bankua erabiltzeko edo gauzak ordaintzeko.

#### Garrantzitsua da ere honako esaldiak ez normaltzat hartzea:

- “Pentsioa familia osoarena da”.
- “Etxeak ez du behar dagoeneko”.
- “Hau zaintza ordaintzeko da”.

Idea horiek kontrol- edo abusu-egoerak ezkuta ditzakete.

# 6

## NOLA PREBENITU



Gai horri buruz **naturaltasunez hitz egiteak** prebenitzen laguntzen du. Ez du tabu bat izan behar. Eta ez dugu adinekoa haur bat bezala tratatu behar.

Garrantzitsua da:

- Lasaitasunez bankuko laburpenak, ordainagiriak eta kontratuak aztertzea.
- Ezkutuko zenbakiak edo PINa ez partekatzea, beharrezkoa denean izan ezik, eta orduan ere, segurtasunez egitea.
- Ez dokumentuak presaka sinatzea, ezta pertsona batek horretara bultzatzen duenean ere.

Konfiantzazko pertsonekin **babes sarea** izateak laguntzen du.

Baita erabaki garrantzitsuak hartu baino lehen bigarren iritzia eskatzeak ere.

Honakoetan eska dezakegu laguntza: bankuan, notariotzan, gizarte zerbitzuetan edo aholkulari juridiko bati.

# 7

## ZER EGIN ABUSU-EGOERAREN BATEN SUSMOA BADUZU?



Lehenengo, adinekoarekin hitz egin behar dugu. Posible bada, bakarka. Leku lasaia bilatuko dugu, eta presarik eta presiorik gabe hitz egingo dugu.

**Errespetuz galderak egin** ditzakegu, adibidez:

- Zer gertatu da?
- Nork laguntzen dizu diruarekin?
- Ulertzen al dituzu egindako eragiketak?
- Behartuta edo deseroso sentitu al zara?

Ondoren, garrantzitsua da lagundu dezakeen **informazio guztia gordetzea**. Adibidez:

- Bankuko laburpenak.
- Ordainagiriak.
- Mezuak.
- Kontratuak.
- Datak eta izenak.
- Gertatutakoaren edozein froga edo seinale.

Diruaren mugimendu okerrak badaude, edo iruzur bat izan badaiteke:

- Bankura deitu ahalik eta azkarren.
- Eskatu txartelak blokeatzeko, beharrezkoa bada.
- Eragiketak aztertzeko eskatu.
- Susmoa jasota utzi.

#### **Egoera larria bada,**

profesional baten laguntza bilatu behar dugu:

- Gizarte zerbitzuak arriskua neur dezakete, eta zer egiteari buruz aholkuak eman ditzakete.
- Delitua, iruzurra, mehatxuak edo derrigortzeak egon badaitezke, poliziara joan behar dugu.
- Berehalako arriskua badago, deitu 112ra.

Kasu batzuetan zuzenbideko edo notariotza bateko aholkua behar izan daiteke, adibidez, ahalordeekin, oinordeekin, salmentekin edo dohaintzekin lotutako gaietan.

## 8

### NOLA HITZ EGIN KALTETUAREKIN?



Oso garrantzitsua da adinekoa ez errudun sentiaraztea edo epaitzea. Eztabaidatzea edo zuzenean aurre egitea ez da ona. Egoera horiek sufritzen dituzten pertsona askok **lotsa, beldurra** edo kaltea egiten dion pertsonarekiko **menpekotasun emozionala** sentitzen dute.

Horregatik, hobe da arretaz entzutea, pertsonak kontatzen duena sinestea eta laguntza eskaintzea, erabakiak hartzera behartu gabe.

**Galdera errazak** egiteak ere lagundu dezake, adibidez:

- Nork ordaindu ohi ditu zure fakturak edo nor doa bankura?
- Zure kontuak edo bankuko laburpenak ulertzea zaila egin al zaizu?
- Norbaitek eman nahi ez zenituen dirua, opariak edo egin nahi ez zenituen sinadurak eskatu al dizkizu?
- Norbaitek zure txartela, mugikorra edo ezkutuko zenbakiak erabiltzen al ditu zu aurrean ez zaudenean?
- Dirua falta al zaizu janaria, botikak edo oinarrizko gastuak ordaintzeko, nahiz eta diru-sarrerak dituzun?



- **Banku-erakundera:** eragiketak aztertzeko, eta babes neurriak jartzeko.



- **Udalaren edo oinarrizko gizarte zerbitzura:** kaltea neurtzeko, eta erantzunari buruzko laguntza eman diezaguten.



- **Poliziera edo Ertzaintzara:** delituen edo iruzurraren susmoa dagoenean.



- **Aholkularitza juridikora edo notariotzara:** dokumentuei, ahalordeei edo ondarea eskualdatzeari buruzko zalantzak ditugunean.



- **112ra deitu:** berehalako arriskua, derrigortzea edo iruzurra une horretan gertatzen ari denean.



Adinekoek haien diruari, ondareari eta bizimoduari buruz **erabakitze eskubidea** dute.

### Laguntza behar izateak

ez du erabakitze autonomia galtzea esan nahi.

Honakoak behar dira **prebenitzeko:** errespetua, entzutea, informazio argia eta erantzun bateratua alerta seinaleak agertzen direnean.





**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRAFICO

